

**NORTASUN JURIDIKORIK  
GABEKO ENTITATEAREN  
ZIURTAGIRIA  
JULKITZEKO, ETETEKO,  
EZEZTATZEKO, BERRIZ  
AKTIBATZEKO ETA  
BERRITZEKO  
PROZEDURA**

## **Edukia**

<b>1.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA .....</b>	<b>3</b>
1.1	ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA.....	3
1.2	ESKATZAILEAREN IDENTITATEA ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATEAREN ERATZEA EGIAZTATZEA .....	3
	Beharrezko dokumentazioa .....	3
1.3	ZIURTAGIRIA JAULKITZEA.....	6
1.4	ZIURTAGIRIA EMATEA.....	6
<b>2.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA.....</b>	<b>6</b>
<b>3.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK ETETEA .....</b>	<b>7</b>
3.1	ETENAREN GEHIENEZKO EPEA .....	7
<b>4.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRIZ AKTIBATZEA.....</b>	<b>7</b>
<b>5.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRITZEA.....</b>	<b>7</b>

## 1. ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA

### 1.1 ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA

Eskatzaileak <http://www.izenpe.com> web-orrian aurkitu ahal izango duen ziurtagiriak eskatzeko orria bete beharko du.

Bestela, hori <http://www.izenpe.com> web-orrian argitaratutako zerrendan adierazitako bulegoetako edozeinetan egin ahal izango du.

Nortasun juridikorik gabeko entitateen ziurtagiria elektronikoa zergen esparruko datuen komunikazio eta transmisioak bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa egiteko bakarrik erabili ahal izango dira.

### 1.2 ESKATZAILEAREN IDENTITATEA ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATEAREN ERATZEA EGIAZTATZEA

Eskatzaileak bere identitatea egiaztatu beharko du, baita ordezkatzeko duen nortasun juridikorik gabeko entitatearen eratzea eta ziurtagiri elektronikoa eskatzeko ahalmen nahikoa baduela ere, horretarako beharrezkoak diren agiriak aurkeztuz.

#### **Beharrezko dokumentazioa**

Ziurtagiriaren eskatzaileak ondorengo dokumentazioaren agiri originala edo kopia kautotua aurkeztu beharko du:

#### **(A) Identifikatzeko elementuak**

Eskatzaileak identifikazioko entitate publikora hurbildu beharko du bertan bere burua identifikatzeko eta ondorengo agiriak aurkezteko:

1) NAN edo pasaporte, estatuko herritarra bada.

2) Atzerriko hiritarren kasuan:

- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den estatuen bateko hiritarra bada, AIZ eta identitatea egiaztatu ahal izateko indarrean dagoen identitate-agiri bat eskatu ahal izango da.

- Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra bada, egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

Ziurtagiriaren eskatzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du.

Identifikazioko entitate publikoak eskatzailearen identitatea egiaztatzeko akta egingo du.

**(B) Nortasun juridikorik gabeko entitatea behar bezala eratuta dagoela eta eskatzaileak ahalmena baduela egiaztatzeko agiria**

Ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da, identifikazioko entitate publikoak egiaztatzeko:

1) Entitatea behar bezala eratuta dagoela egiaztatzeko dokumentazioa

- Entitatearen behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- Izen-ematea egiaztatzen duten ziurtagiriak edo ohar soilak, eskaeraren datan edo aurreko hamabost egunetan egindakoak, honako hauek bereziki:
  - a) Inbertsio-fondoak, arrisku-kapitaleko fondoak, hipoteka-tituluen merkatua erregulatzeko fondoak, hipoteka-titulazioko fondoak, aktiboen titulazioko fondoak, inbertsioak bermatzeko fondoak eta pentsio-fondoak badira, dagokion Ekonomia eta Ogasun Ministerioko edo Balore Merkatuko Komisio Nazionaleko erregistroko izen-ematea egiaztatzen duen ziurtagiria.  
  
Egiaztagirian fondoa kudeatzen duen entitatea identifikatu beharko da.
  - b) Manu komunekin auzo-mendien komunitate titullarrak badira, estatutuak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko erregistroan edo, hala badagokio, dena delako autonomia-erkidegoko erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen egiaztagiria.
  - c) Zerga-erregimen bereziari lotutako aldi baterako enpresa-elkarteak badira, Ekonomia eta Ogasun Ministerioan enpresen aldi baterako elkartearen erregistro berezian, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari atxikitakoan, izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria.

- Entitate eskatzaileek nahi badute eta, edonola ere, ez badute aurreko atalean adierazitako erregistroetako bakar batean ere izena emateko betebeharririk, eskritura publikoak, estatutuak, hitzarmenak edo eratuta eta indarrean dagoela egiaztatuko duen eta bertako kideak identifikatuko dituen beste edozein agiri aurkeztuko dituzte eskaerarekin batera.

## 2) Eskatzaileak ordezkatzeko ahalmena baduela egiaztatzen duen dokumentazioa

Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiria honakoek aurkeztu ahal izango dute: berorren ordezkariak, ordezkatzeko ahalmena argi eta garbi zehazten bada, edo horretarako berriazko ahalmena duen hirugarren batek.

Edonola ere, pertsona fisiko batek eskatu beharko du ziurtagiria eta bere zeregina izango da sinadura sortzeko datuak zaintzea.

Ziurtagiriaren eskatzaileak honakoa entregatu beharko du:

➤ Dokumentazioa:

- a) Entitateak izena eman behar dueneko erregistro publiko nahiz berezietako egiaztagiria edo ohar soilak, horietan ordezkaria identifikatzen bada.
- b) Hala ez bada, eskatzaileak ordezkatzeko ahalmena duela egiaztatzen duten notarioaren agiriak.
- c) Horretarako emandako ahalorde berezia.

Egiaztagirik edo ohar soilak eskaeraren datan edo aurreko hamabost egunetan egindakoak izan beharko dute.

- Ordezkaritza ezin bada egiaztatu aurreko atalean adierazi bezala, kasuan kasu egoki diren ordezkariak izendatzeko agiri pribatuak aurkeztu ahal izango dira hori frogatzeko.

Zehatzago esateko, ondorengo agirien bidez egiaztatu ahal izango da ordezkariak:

- a) Jaraunspen jasogabearen ordezkaria izendatzeko agiria, jaraunse guztiek sinatutakoa, ordezkariaren izen-abizenak eta NAN adieraziko dituen, administratzeko ahalmen osoa izango duen administratzaile judiziala edo albacea izendatu ez bada.
  - b) Komunitateko presidentea izendatzeko egindako jabeen batzarreko aktaren kopia, jabetza horizontaleko erregimeneko komunitateak direnean.
  - c) Ondasun-erkidegoen eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Kode Zibilaren 398 artikuluan aurreikusitakoaren arabera entitatearen interesen gehiengoa ordezkatzeko nahikoa den kideen kopuruak sinatutako agiria, ziurtagiri elektronikoa eskatzeko ordezkari izango den pertsona izendatzen duena. Edonola ere, entitatearen administratzaile judiziala izendatu bada, hori izango da ordezkaria.
- Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ordezkariak pertsona juridiko bati badagokio, eskatzaileak entitatea administratzeko edo ordezkatzeko

ahalmena duela egiaztatu beharko du edo bere ordezkatuak kudeatzen duen nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri elektronikoa eskatzeko ahalorde berezia izan beharko du.

Identifikazioko entitate publikoak eskatzaile ahalordedunak aurkeztutako agiriak egiaztatzeako akta egingo du.

### **1.3 ZIURTAGIRIA JAULKITZEA**

Eskatzailearen identitatea egiaztatu ondoren eta erregistro-entitateak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, ziurtagiria jaulkiko da.

### **1.4 ZIURTAGIRIA EMATEA**

Erregistro-entitateak ziurtagiria eskatzaileari emango dio. Horretarako, honako bideetako bat hautatu ahal izango du eskatzaileak:

1. Ziurtagiria jaulkitzeko unean ematea PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria eta une horretan ematea ziurtagiria erabiltzeko baldintzen berri. Une horretan eskatzaileak entrega- eta onarpen-orria sinatu beharko du.
2. Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran zehaztutako posta-helbidean entregatzea zuzenean eskatzaileari. Eskatzaileak entrega- eta onarpen-orria gehienez ere hilabeteko epean itzuli beharko du sinatuta IZENPEra. Hala ez bada, ziurtagiria ezeztatuko da.

Eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran adierazitako eskatzailearen posta-helbidera bidaltzea PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria, eta bertan ematea ziurtagiria erabiltzeko baldintzen berri.

## **2. ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA**

Ziurtagiria ezeztatzeako eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan bere burua identifikatu beharko du, nazioko hiritarra bada NAN edo pasaportearen aurkeztuz, egoitza-txartela aurkeztearen bidez Europar Batasunaz kanpoko atzerritarra bada edo AIZ eta identitatea egiaztatu ahal izateko indarrean dagoen identitate-agiri bat aurkeztuz Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den estaturen bateko hiritarra bada. Horren ostean, ziurtagiria ezeztatzeako eskaera bete beharko du. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztatzeako arrazoiak egiaztatzen duen agiria entregatu beharko luke. Ezeztatzeako arrazoiak eta ezeztatzea eska dezaketenean bete beharreko baldintzak Izenpe, S.A.ren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan, 4.4. atalean, kontsulta daitezke.

### **3. ZIURTAGIRIAK ETETEA**

Gakoen edukitzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du ziurtagiria eteteko. Hori beti egin beharko du ziurtagiria galdu edo lapurtuz gero. Horretarako 902 542 542 telefono-zenbakira deitu beharko du eta bertan honakoak eman beharko ditu identifikatzeko:

- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza
- Gakoen edukitzailearen NAN, egoitza-txartela Europar Batasunaz kanpoko atzerriarra bada edo AIZ Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den estaturen bateko hiritarra bada.
- Enpresaren IFK.

#### **3.1 ETENAREN GEHIENEZKO EPEA**

Etenaren gehienezko epea hamabost egun naturalekoa izango da, gakoen edukitzaileak eskatzen duenetik hasita. Epe horretan zehar gakoen edukitzaileak ziurtagiria berriz aktibatu nahi duela baieztatu beharko du, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Epe hori igaro eta gakoen edukitzaileak ziurtagiria berriz aktibatu nahi duela baieztatzen ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

### **4. ZIURTAGIRIAK BERRIZ AKTIBATZEA**

Gakoen edukitzaileak 15 egun naturaleko epea izango du ziurtagiriak berriz aktibatzeke, berori eteteko eskaera egiten duenetik hasita. Epe hori igaro ondoren ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Gakoen edukitzaileak erregistro-entitate batera hurbildu beharko du ziurtagiria berriz aktibatzeke. Bertan bere burua identifikatu beharko du, NAN edo pasaportearen aurkeztuz, AIZ eta identitatea egiaztatu ahal izateko indarrean dagoen identitate-agiri bat aurkeztuz nahiz egoitza-txartela aurkeztearen bidez, Europar Batasunaz kanpoko atzerriarra bada. Horren ostean, berriz aktibatzeke eskaera entregatu beharko du, behar bezala beteta.

### **5. ZIURTAGIRIAK BERRITZEA**

Ziurtagiri bat berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), harpidedunak ziurtagiri berria eskatu beharko du, ziurtagiriak egiteko finkatutako prozesuari jarraiki.